

Basoa Euskal Herriko historian zehar

Alvaro Aragón Ruano

**EHU, Erdiaroko, Aro berriko eta Ameriketako Historia Saila
UEUko Historia Saila**

Antzinako Errejimenean basoa bizitzaren bizigunea zen. Garai honetan jarduera gehienak basoaren inguruan kokatzen ziren: gizakumeen elikadura, abereen janaria, ehiza, etxeko sua, ikatzaren industria, eraikinak, nekazaritza, etxeko eta teknika tresnak, ontzigintza, e.a. Horregatik, basoak izan zuen bilakaera jarduera hauekin oso lotuta zegoen. Gipuzkoan eta Bizkaian jarduera hauen arteko eta basoaren inguruko aurkakotasuna bortitza baino bortitzagoa izan zen. Egun, gauzak aldatu dira, basoak ez baitu ekonomiarekiko hainbeste garrantzirik. Momentu honetan basoarekiko interesa izadiaren kontserbazioan eta suntsiketean datza.

In the Ancient Regime the wood was the center of life. Most activities turned round the wood during this period: human feeding, animals' food, hunting, the house's heating, coal industry, buildings, the implements of farming, household and technique, navigation and so on. That is why the wood was so close to the development of these activities. The rivalry between these activities and the wood was very big both in Gipuzkoa and Bizkaia. Nowadays things have changed, for the wood hasn't got such an economic relevance. At the present, the interest towards the wood is centred on nature's preservation and its destruction.

1. Basoa ekonomiaren bilakaerari lotuta

Antzinan basoa (mendia, zentzu zabalean) bizitzaren erdigunea zen*. Antzinarako Errejimenen gizarteak aurrerapena eta ongi-izatea lortzen saiatzen ziren, basoa eta izadia menperatzeko borroka latza mantenduz.

Historian zehar, Euskal Herriko ekonomiak oztopo handiei aurre egin behar izan ziren, jendetza eta baliabideen arteko oreka mantentzearen, elikagai nahikoa ekoizteko gai ez zen lurralde batean, batez ere, Atlantiar Euskal Herrian. Lurralde honetan oso zaila zen mediterranean ereduia –eredu nagusia industrializazioa arte– garatzea. Horregatik Ipar Euskal Herria, Bizkaia eta Gipuzkoa zenbait baliabide primario (burdina, komertzioa) garatzen saiatu ziren. Produktu hauek nekazaritza haborokina zuten lurraldeetan komertzializatzen ziren elikagaien truke (haborokina zuten lurraldeen artean Araba eta Nafarroa kokatzen ziren) (Bilbao 1979: 115).

XIII eta XIX. mendeen arteko ekonomi ereduak mendiak eta basoak izan zituen ardatz. Garai honetako jarduera gehienek egurra behar zuten eta baso menpekotasuna garbia zuten: gizakumeen elikadura (ezkurra eta gaztaina, gordinik zein irin bezala), abereen janaria (ezkurra, gaztaina, hostoak), ehiza, etxeko suaren egurra, ikatzaren industria, eraikinak, nekazaritza, etxeko eta teknika tresnak, ontzigintza, hesiak. Horregatik jarduera hauek izan zuten bilakaerak eragin zuzena izan zuen basoan; basoa zuzentzen zuten legeak eta usadioak sinbiotikoki bilakatu ziren. Basoaren ustiaketa industri lurraldeetan indartsuagoa izan zen. Beste lurraldeetan (Araba, Nafarroa), basoaren atzerapena nekazaritza eta abeltzantza jarduerak eta hirien sueguraren eskariak eragin zuten.

Industri lurraldeetan, batik bat Bizkaietan eta Gipuzkoan, baina baita Ipar Euskal Herrian eta iparraldeko Nafarroan ere, basoaren atzerapenak faktore gehiago izan zituen. Eremitan nekazaritza eta abeltzantzari, burdingintza, ontzigintza eta etxegintza gehitu zitzaizkien. Lurralde hauen artean, jarduera ekonomikoaren arteko aurkakotasun bortitzena zutenek basoaren suntsiketa handiena jasan zuten, hau da, Bizkaiak eta Gipuzkoak. Are gehiago, batik bat, XVII. mendetik aurrera Gipuzkoa izan zen suntsituena, horregatik lege eta araudi gehien garatu zuen lurraldea izan zen; ontzigintza eta Ainguren Errege Fabriken interesek aurrez aurre aurkitu zituzten burdingintzaren eta Probintziaren interesak.

Industrializazio aurreko ekonomietan –nekazaritza oinarrikoak– basoaren murrizketa edo hedapena populazio dentsitateari lotuta zegoen. Zabaltze denboraldietan, jendetzaren garapenak, eriteko lurraren zabalpena eskatzen zenean, basora jotzen zuen. Populazioaren igoera jarraiak, basoaren ustiaketa sakonagoa ekarri zuen, etxeko suaren, eraikitze materialen, tresnen fabrikazioaren, eta abarren beharrak asetzeko. Krisialdietan berriz, lurren uzketak, eraiketen eta industriaren atzerapenak, eta etxeko suaren eskariaren kontrakzioak, zuhaitzen berreskurapena ekarri zuten (Uriarte Ayo 1988: 114).

*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikertzaileak prestatzeko daukan programaren beka da artikulu honen egilea.

Gaur egun, berriz, gauzak aldatu dira. Basoak ez dauka ekonomian hainbeste teko garrantzia. Paper fabrikek eta zerrategiek krisialdi sakona jasan dute, eta egurraren eskaria jaitsi egin da. Hirugarren sektorearen indartzeak eta, aldi berean, lehen eta bigarren sektoreen atzerapenak basoaren kontzeptu berria ekarri du. Egun basoaren interesa izadiaren kontserbazioan (izadiaren gozamina, egur kontserbazioa, aisia zerbitzuak, basa abereen bizilekua, ikatz erreserba) eta sunsiketan (uholdeak, higadura, klimatologi aldaketak, globalak zein lokalak) datza.

2. Basoaren historia Antzinako Errejimenean

2.1. Zuhaitz motak

Landare paisaiaren jatorrizko egoera eragiten zuten faktoreak klimatologia konstanteak eta edafologia baldintzak ziren. Antzinako eta gaurko baldintzak parekoak dira. Halere, ez dakigu zehatz mehatz nolakoa zen orduko paisaia.

Gipuzkoa, Bizkaia, Ipar Euskal Herria eta iparraldeko Nafarroan zuhaitz nagusienak haritza, gaztainondoa eta ametza ziren 1000 metro arte (pagoarekin nahastua), pagoa 800 metrotik gora, pinua eta izeia (nahastuta 800 metrotik gora) 1200-1300 metrotik gora. Lizarra, urkia, zumarra, astigarra, haltza eta sahatsa bigarren mailako motak ziren (Aragón 1996: 463; Goyheneche 1990: 105-107).

Araba eta Nafarroan zuhaitz nagusienak artea, miter txuria eta ametza ziren, eta pinua, pinu beltza eta izeia mendi garaietan.

2.2. Historiaurrea eta Antzin Aroa

Garai hauetan gizataldeek basoarekiko elkarbizitza orekatua zuten. Goldatze gehienak nekazaritzarenak ziren, abeltzantza gizarte batean.

2.3. Erdi Aroa

Basoaren aprobetxamendua ez zegoen arautua. Hiri-gutunetan erregeak udal barrutiaren mendien probetxamendua ematen zien bere menpekoei, erabilpena zehaztu gabe. Hau ikusita esan dezakegu ez zegoela basoaren aberastasunean inongo oztoporik XII eta XIII. mendeetan. 1328. urtean, adibidez, Alfontso XI.ak Irun-Oiartzungo olagizonei Burdinolen Forua eman zien; honek behar zuten egurra moztea –edozein zuhaitz edo lekutik– baimentzen zuen. Foruaren arabera ohitura hau atzetik zetorren, eta aurreko erregeek onartzen zuten (Larrañaga Zulueta 1993: 23).

Beraz, basoa oparoa zen eta inork ez zuen uste desagertuko zenik. XIV. mendean hasi ziren murrizketak, haritza eta gaztainondoaren –zuhaitz moeta ustiatuenen– ebaketan eta mozketan¹. Mende honetan krisialdi sakona suertatu zen. Izandako uzta txarrek –klimaren hoztura nabarmenaren ondorioz– izurrite handia ekarri zuten, honekin populazioak atzera egin zuen, eta ekonomiak kontrakzio galanta nozitu zuen. Baina XV. gizaldian, ekonomia eta demografia

1. Bereizi egin behar dira bi hitz hauek. Ebaketa ('tala') enborearen mozketak da, eta mozketak ('corte') adarrarena. Egun bi termino hauek ez dira bereizten ez euskaraz ez erdaraz, baina bai XVIII. mendea arte.

berreskuratu ziren. Demografiaren hedakundeak, uzten hobekuntzaren ostean, ekonomiaren garapena baimendu zuen, honekin burdinaren eskaria zuzpertzuz eta aldi berean burdinola berrien eraikuntza. Garai honetan burdinolak ugaltu egin ziren eta baita produkzioa ere, eskari berriari aurre egiteko. Honek egurraren kontsumoaren igoera ekarri zuen eta basoaren atzeraldia (Bilbao 1979: 125-129). Era berean, jendetzaren igoerak janariaren eskaria igo zuen eta honekin lursoro eta larreen hedakuntza.

Hiru ziren egur eskari nagusia zuten jarduerak XV. mendean:

1- Eraikuntza. Hiribilduetako etxe gehienak zurezkoak ziren; bakarrik zenbait dorretxe ziren harritzkoak. Erabiltzen ziren egur arruntenak haritza eta pagoarena ziren, nahiz eta batzuetan sahatsa, lizarra edo haltza erabili (Arizaga 1990: 233). XV. mendean egurraren ordez harria erabili zen etxeak eraikitzeke, bi arrazoirengatik: Lehena, egurraren ahulezia suteen aurrean. Erdi Aroan sute asko gertatu ziren Gipuzkoan (adibidez, Donostian 9 sute izan ziren: 1278, 1338, 1361, 1397, 1433, 1483, 1489, 1496, 1512; ikus Arizaga 1990: 332). Bigarrena, egurraren eskasia.

2- Burdingintza. Egur gehien kontsumitzen zuten jarduera izango da (ikatza eta burdinolaren eraikuntza). XV. mendearen bukaeran Gipuzkoako 110 burdinolek 1.650.000 egur txorta/urteko kontsumitzen zituzten (Díez de Salazar 1983: 146).

3- Ontzigintza. Garai honetan Euskal Herria ontzigintzaren buruan zegoen. Lapurdi zein Bizkaia eta Gipuzkoako ontzitegiek produkzio anitza zuten, eta beren itsasontziak Europako preziatuena ziren (Alberdi 1998).

XV. mendearen erdialdean olagizonek beren eskubideak zabaldu nahi izan zituzten, basoa gehiago aprobetxatzeko asmoarekin. Baina udalen interesekin jo zuten aurrez aurre. Udalek behar berriak zituzten, Errege-Erregina Katolikoen erreforma ondoren, handiagoak egin baitziren; ordu arte dirusarrerak eskasak izan ziren eta udalek basoan diruiturri garrantzitsu bat ikusi zuten. Egoera honek zenbait auzi eta hitzarmen ekarri zituen, basoaren erabilpena zatitzeko. Legazpi, Elgoibar, Deba, Zestoa, Elduaien-Berastegi, Hernani-Donostia, Oiartzun, Gerrikaitz eta Ziortzako Kolegiata honen adibide dira. Bi motatako gatazka egon ziren: bi udalen artekoak, beren mugak zehazteko, eta udala eta partikularren artekoak. Bigarren hauetan, normalean, gatazka olagizonekin gertatzen zen. Hitzarmen baten ondoren herribasoak zatitzen ziren, angioak seinalatuz, non olagizonek egurra eskura baitzezaketan ikatza egiteko (Díez de Salazar 1983: 91-92).

Prozesu honek basoaren erabilpenaren eskubidearen titulaketaren murrizketa zeukan bere barnean. Zenbait instituziok beren esku hartu nahi zituen basoak: udalek, olagizonek, e.a. Kaltetuenak, beti bezala, auzokoak eta herri erabilpenak izan ziren. Ikus dezagun zer nolako baso motak –juridikoki– zeuden Euskal Herrian Antzinako Errejimenean:

- Errege basoak: noizbait erregearenak izan zirenak.
- Baso frankoak: erabilpena libre zen auzokoentzat.
- Usabaso-angioak: herrilurrak izan arren, erabilpena mugatua zegoen.
- Partzoneriak: ustiaketa komunala zen.

- Sarobeak (Kortak): Eremu biribil hauek abeltzantza eta baso ustiaketa izan zuten oinarri (Aro Berria, asko laborantza lursoro bihurtu ziren).
- Baso pribatuak: jabetza pribatua zen (jabego bakarra, anitza, eliza, udalak –“propioak”–, e.a.) (Díez de Salazar 1983: 463).

2.4. Aro Berria

Hegoaldeko basoaren historiak garrantzizko bi momentu ditu:

1- 1548. urtean Gipuzkoako Biltzar Nagusiak desoihanketaren garrantziaz jabetu ziren, lehenengo aldiz. Landatze Ordenantzak, herri bakoitzak urtean 500 haritz edo gaztainondo landatu zezala agindu zuen². 1593. urtean Bizkaia egoera berdinean aurkitzen zen eta moztutako zuhaitz bakoitzarengatik bi landatu behar zirela agindu zen; 1604. urtean neurria errepikatu egin zen: auzoko bakoitzak lau haritz hostotxiki jarri behar zituen herri usabasoan (Uriarte Ayo 1988: 115-116).

2- 1748. urtean Gaztelako Erregeak, Fernando VI.k, Mendien Ordenantza ezarri zuen (Novísima recopilación de las leyes de España 1975: 532-543). Gipuzkoak bere ordenantza partikularra izan zuen 1749. urtean (Novísima recopilación de las leyes de España 1975: 548-553) (Ordenantza hau 1738. urtean Gipuzkoako Batzar Nagusiek burututako Mendietako Arautegiaren³ parekoa zen). Gipuzkoari jarraituz Bizkaiak berea osatu zuen 1752. urtean⁴ (nahiz eta 1784. urtea arte erregearen konfirmaziorik ez jaso). Nafarroak eta Arabak Gaztelako legea izan zuten ardatz, nahiz eta Nafarroako Gorteen 1757. urtean bere Arautegia osatu⁵. Iparraldean, berriz, 1669. urteko “Ordonnance sur le fait des Eaux et Forêts” jarraitu zuten.

Berrehun urteko historia dugu hau, non basogintza modernoa mamitzen baita. Denboraldi honetan basoak aldaketa garrantzitsuak nozituko ditu bai antolaketa bai teknika eta giza mailan, pixkanaka zehatzagoa eta teknikoagoa eginaz.

Ikus dezagun zer gertatu zen aipatutako epealdian. XV. mendearen bukaeran eta XVI. mendearen hasieran, ikusi dugunez, demografiak zein ekonomiak hedakunde nabarmena izan zuten. Ekonomi sektore guztiek garai onak ezagutu zituzten. Denek basoaren inguruko interesak zituzten, batzuek mantentzeko besteek deusezteko, baina emaitza berdina izan zen: basoaren atzeratzea. Gatazka hau gainditzeko, Aldundia gehienetan burdingintzaren alde jarri zen, sektore errentagarriena hau baitzen, orokorrean.

Dударik gabe, Gipuzkoa zen gatazka handienak izan zituen eskualdea, eta ondorioz legeak ugariagoak izan ziren. 1552. urtean Elgoibarren ospatutako Biltzar Nagusietan Txara Ordenantza ezarri zen, nahiz eta olen interesak zituzten zenbait herri aurka jarri (Orereta, Elgoibar, Hernani, Oiartzun) (Díez de Salazar 1991: 375). Itsasotik bi lekoara zeuden Gipuzkoa eta Bizkaiko herrien landatzeari buruzko

2. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra (GAO). R2, Zumaiaiko Batzar Nagusiak (1548-IV-14/24), 7. Biltzarra.

3. GAO JD IM 2/17/27.

4. Koldo Mitxelena Kulturunea, J.U. 9797.

5. Orreagako Errege Kolegiataren Agiritegia, 670. liburua.

1563. urtean sortutako Errege Probisioa ez zen aurrera atera XVII. mendearen hasiera arte; Superintendenteak lehenago Korregidoreak zituen eskumenak edukiko ditu (landatze lanak kontrolatzen zituen)⁶.

XVI. mendearen seigarren hamarkadan, Europan eta baita Euskal Herrian ere krisialdi berri bat agertu zen. Horren ondorio nagusia ekonomia-aren baserritzea izan zen. Burdingintzak kontrakzio sakona jasan zuen. Baserritze horren adibidea urratzeen hedapena dugu (Bilbao 1979: 136-137). Basoa mantentzeko Debako Biltzar Nagusietan, 1644. urtean, urratze eta landaketak egiteko moduari buruzko dekretua osatu zen. Moztutako basoetan urratzea debekatua zegoen, eta baimentzen zen kasuetan zerga bat ordaindu behar zen, zuhaitz berrien landaketa finantzatzearren⁷. 1657. urtean beste dekretu berri bat atera zen zentzu berdinean: urratzeko lizentzia eskuratuz gero, urtean sei zuhaitz landatu beharko ziren herrilurretan. Lehenengo aldiz, kontzejuek mintegiak eraiki behar zituzten. Udalaren diruiturrietan % 10-a zuhaitzak landatzeko eta zaintzeko ziren, hemendik aurrera. Honako dekretu hau 1670. urtean izan zen baimendua⁸.

Beste eskualdeek ere baserritze prozesuaren ondorioak jasan zituzten, eta basoak atzera egin zuen; dena dela, atzeratze hori ez zen hain nabarmena izan. Beraz, mementu honetan Gipuzkoa eta Bizkaia izan ziren lurralde zigortuenak.

XVIII. mendean, Espainiako gertaerek garrantzi handia izan zuten Hegoaldearen etorkizunean. Austriarren dinastia desagertzeaz zegoen Karlos II. arekin. Ondorengotza Gudak (1713. urtean bukatutakoa) Borboien dinastia ekarri zuen. Ondorengo urteetan Espainiar Koroaren antzinako ospea berreskuratzen saiatu zen. Horretarako bi ardatz izan zituen bere politikak:

1- Barneko politika bateratzailea egin zuen.

2- Atzerrian lehengo Inperioa berreskuratzen saiatu zen (Lynch 1991: 106-107). Horretarako ezinbestekoa zuen itsas-armada boteretsua izatea; hona hemen, Hego Euskal Herriko kostaren garrantzia. Bertako ontzitegi zein basoek berebiziko garrantzia zuten, beraz, Borboien politikan. Hau ikusita, Gipuzkoa, batez ere, eta Bizkaia beren interesak babesten saiatu ziren. Probintziek burdingintzaren defentsa izan zuten ardatz.

Horregatik, 1748. urtean Koroak bere Mendi Ordenantza ezarri zuenean Probintziak bere protesta luzatu zuen. 1738. urtean Probintziak Estatuari aurrea hartuz, Mendi Arautegia osatu zuen; berrikuntza nagusia landaketa liburuaren agerpena izan zen –honek kontrol handiagoa suposatzen zuen– eta basogintzaren aurrerakuntza. 1748. urteko Ordenantzak foruen aurkako zenbait eraso suposatzen zuen, batez ere, administrazio mailan. Basoaren kontrola ontziteria Ministroari adjudikatzen zion, baina Probintziak basoaren kontrol handiagoa nahi zuen, Diputazioaren mende egotea nahi zuen, hain zuzen ere (burdinaren eta itsas-armadaren interesek aurka egin zuten, eta legek bi jarduera kidetzen saiatu zen). 1749. urtean Ordenantza partikularra eman zitzaion Gipuzkoari. Gipuzkoak “Pribativa y omnímoda jurisdicción” zuen, hau da, arlo guztietako kontrola.

6. GAO CO CRI 14,1.

7. GAO R26, Debako Batzar Nagusiak (1644-XI-14/24), 2. Biltzarra.

8. GAO R28, Azkoitiako Batzar Nagusiak (1657-XI-14/24), 2. Biltzarra.

Pareko irtenbidea bilatu nahian, Bizkaia gauza bera lortzen saiatu zen. 1752. urteko ordenantzak Gipuzkoako 1749. urtekoa zuen eredu. Halere, Bizkaiaren kontribuzioa itsas-armadan askoz txikiagoa zenez, ez zuen hainbeste eskubide lortu; Bizkaiak, bere Diputazioaren bitartez, ekonomi eta gobernu eskumena izango zuen eta korregidoreak eskumen judiziala (Gipuzkoan, aldiz, korregidoreari bakarrik pleito zibilak ikusteko aukera ematen zitzaion).

XVIII. mendeko legeak berreskurapenean ardaztu ziren, ordurarte prebentzioan izan bazen ere. Lege berriek landatutako zuhaitz bakoitzagatik belloi erreal bateko ordainketa ezartzen zuten, mintegien garrantzia zuzpertzeko. Mintegien inguruan negozio handia sortu zen eta herriko gizonik boteretsuenak –normalean “kontzejanteak”– udal mintegiez arduratu ziren, zentzu batean, jabegoa eskuratuz –“de facto” behintzat–.

XVIII. mendea denboraldi hedakorra izan zen Hegoaldean. Demografia igo egin zen (Piquero 1991: 197) eta honek beste sektoreak aurrerarazi zituen. Berriro ere egurraren eskaera igo zen eta horrekin basoarentzako arriskuak. Borboien politikarekin (Ontzigintza eta Ainguren Errege Fabriken eskaria kontuan edukirik) burdingintzaren beharra zuzpertzeko zen (Uriarte 1985: 129-156), eta egurrarena berarekin. Demografiaren igoerak nekazal produktuen eskaera eragin zuen; mende honetan asko dira luberritu ziren ihitoki, larre eta basoak. Ontzigintzak ere bere egur eskari zuzena ugaritu zuen. Azkenik, sukaldearen agerraldiak etxeko egur behararen igoera ekarri zuen.

Mendearen bigarren erdialdean, basoa eta abeltzantzaren atzerapenak alde batetik, eta nekazaritzaren hedapenak bestetik, oreka biologikoa kolokan jarri zuten. Behien kopuruaren murrizteak (1775.eko izurritearen ondoren) animali ongarrien eskasia ekarri zuen; horregatik, nekazaritzak gero eta ongarri gehiago behar zuenez, landare abonuen ustiatzea gero eta sakonagoa izan zen. Orbelaren erauzketak zuhaitzei elikagai garrantzitsua kentzen zien, bere haziera kaltetuz. Arazo hau konpontzearen, udalek banaketaren bidea hartu zuten; horrela sortu ziren “ondazilegiak”, non sukaldeko egurra, hostoa, otea, garoa eta txilarra partitzen baitziren (Otaegui Arizmendi 1991, 19)⁹. Orduan sortu ziren benetako arazo larriak basoarentzat, eta orduan azaldu zen desoihanketa bere krudeltasun bortitzenean.

Beraz, agi denez, mende honetan basoaren egoeraren erantzunkizun zuzena zuten sektoreak burdingintza, ontzigintza, abeltzantza eta nekazaritza izan ziren. Baina bazegoen beste arrazoi zuzen bat. Gudek basoaren suntsiketa eragin zuten; Konbentzioko gudak soldadu asko ekarri zituen bai Iparralde bai Hegoaldera. Tropa hauek kantonatuak egon ziren Euskal Herriko lurretan, egurraren kontsumo handia eta indiskriminatua eginez¹⁰. Independentziaren gudan gauza bera gertatu zen. Bada azkeneko arrazoi bat: desamortizazioa eta herrilurren salmenta. XVIII. mendearen erdialdetik aurrera hasi zen prozesu hau (Otaegui Arizmendi 1991: 2-3). Udalek zor handiak zituzten, diruiturriak jaitsi egin ziren (basoaren txikizioak berak garrantzi handia izan zuen egoera horretan) eta gastuak gero eta gehiago ziren (medikuak, irakasleak, basozainak, udaleko funtzionarioak, herri lanak, minte-

9. GAO JD IM 2/17/108.

10. GAO JD IM 2/17/105.

gietako gastuak, errege bidea, tropen eta guden finantziazioa). Eragozpen hauek eta udalen diru faltak, basoarekiko eta, batez ere, mintegiekiko interesa gutxitu zuten. Mintegijabeek oztupo handiak zituzten landatutako muskilak kobratzeko¹¹, eta landatzeari utzi zioten; ondorioz basoa ez zen berreskuratzen –baina deusezten jarraitzen zuen– eta, eskasiarengatik, egurraren salneurriak igo ziren¹², eskariaren jaitsiera probokatuz. Basoak hain errentagarriak ez zirenez udalak saltzera behartuak aurkitu ziren (Otaegui Arizmendi 1985: 17, 295). Zorrak ordaintzeko herribasoak eta lurak saldu zituzten. XVIII. mendearen erdialdetik aurrera burutu zen XVI. mendean hasitako prozesua. Prozesu honetan herri erabilpenak eta eskubideak murrizten joan ziren. Auzotarrek eta bizilagunek eskuraketa ttipiagoa zuten herrilurretan, eta oligarkiak, udalean zuen arduren bitartez, gero eta kontrol handiagoa; eurak izan ziren udalen ondasunen salmenta bideratu zutenak (eta baita eskuratu ere, nobleziarekin batera).

Ipar Euskal Herrian desamortizazioa Frantses Iraultzarekin gertatu zen. Ustaritz eta Senpere bitarteko basoetan urtean 10.000 liberatara heldu zen zuhaitz-salmentaren kopurua. Erosleak gehienetan Baionako merkataria ziren; Baionako hiri eta ontzigitzak jaso zuten zur hau. Kontsulatuaren garaian herrierabilpenak desagertu egin ziren (Goihenetxe 1987). Iparraldeko basoek ontzigitza eta bertako sutegien (Baigorri, Mendibe, Larrau eta Atharratze) eragina jasan zuten, XVII. eta XVIII. mendeetan zehar (Goyheneche 1985: 73).

2.5. Gaur Egungo Aroa

XIX. mendean zehar, Hegoaldean Aldundiek baso publikoen ardura izaten jarraitu zuten. 1833. urteko Espainiar legeek ez zuten hau aldatu (Ordenanzas Generales de Montes 1833). Nafarroan, dena dela, 1862. urteko Errege Aginduak Nafarroako Aldundiak lege eta gobernu fakultaterik ez zuela eta hauek Espainiako Gorteetan eta Gobernuan zeudela zioen; Aldundiak bakarrik ardura ekonomikoa mantentzen zuen (Bravo 1892). Hegoaldeko mendi legeak 1936. urtera arte mantendu ziren.

Iparraldean, esan dugunez, basoak Estatu Frantsesaren ardurapean zeuden. Kontsulatu garaian basoen erabilpen eskubideak ezabatuak izan ziren. 1827. urtean “Eaux et Forêts” herri baso eta landen jabe egin zen. 1848. urtean, ordea, nekazariak eskubide hauek berreskuratu zituzten; “Eaux et Forêts”-ek basoaren 1/5 itzuli zien (Goyheneche 1985: 97).

Mende honetan zuhaitzen gaixotasunek garrantzi handia izan zuten. 1860. urtean, Nafarroa Beheretik, gaztainondoaren “tinta” ailegatu zen Gipuzkoara (Oartzunen 100.000 gaztainondo galdu ziren). 1907. urtean oidioak haritzak hartu zituen (Ascasibar 1980: 65).

XX. gizaldiaren hasieran Baso Zerbitzuak sortu ziren Aldundien eskutik, herrien mendiak berroihantzeko. Gipuzkoan 1902. urtean (Norma Foral de Montes

11. Oreretako Udal Agiritegia, B, 6, 1, 4.

12. Hondarribiko Udal Agiritegia, C, 2, 29. Kontutan izan behar da mendiaren produktibitatea jaitsi egin zela, dirusarrerak murriztu eta gastuak hedatu egin zirela. Zuhaitz bat hazteko eta mozteko gastu handiagoa egin behar zen: basozainen eta mintegizainen soldata, peritoen azterketa, txirpien kostua eta mintegijabeen ordaina.

de Gipuzkoa 1996: 10) eta Bizkaian 1916. urtean (AA.AA. 1990: 57) Baso Zerbitzuak sortu ziren. Hauek probintziako mendien berreskurapenerako udalekin kidentu ziren; 400 metrotik bera "pinus insignis" landatu zen eta hemendik gora laritza eta larizio pinua. 1920. urtean Basoaren berreskurapenerako plangintza (lau Aldundiek zuzendua) bertan behera geratu zen, Primo de Rivera boterera iritsi zenean; plangintza hau burutuz gero gaur inportazioak ez ziren hain nabarmenak izango. Basoa berreskuratzeko lur soilak erabili ziren, batez ere pinua landatzeko (AA.AA. 1990: 57). 1936. urteko Guda Zibilaren ostean, Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoak baino autonomi handiagoa izan zuen mendi antolaketa, Frankoren errejimenari eskainitako laguntzarengatik (Groome 1990: 250). 1937. urtean Bizkaiko eta Gipuzkoako Baso Zerbitzuak Estatura pasatu ziren.

Zuhaitz moten banaketa portzentuala

	HEKTAREAK	EHUNEKOA %
Pinus radiata	162.976	42'4
Fagus sylvatica	50.180	13
Quercus ilex	26.707	7
Quercus faginea	23.360	6
Pinus sylvestris	16.453	4'3
Quercus robur	11.697	3
Larix kaempferi	11.331	3
Quercus pyrenaica	8.968	2'3
Pinus nigra	6.161	2
Besteak	66.917	17

Iturria: Euskadiko Baso Plangintza, 1994-2030

XIX. mendean hasitako landaketek emaitza nabarmena izan zuten: Euskal basoek paisai monotonoa osatu zuten hemendik aurrera. Politika honen ondorio nagusia "pinus radiata"-ren nagusitasuna dugu (Groome 1990: 251).

3. Gaur egungo egoera

Gizaldi honetako berrogeita hamarreko hamarkadan baserritarren bizitza aldatzen joango da, autokontsumotik merkatu errejimenera igaroz. Laborantzarako lurra utzi egiten da eta pinua landatu paper fabriken eskariari aurre egiteko. Landaketa gehienak jabetza pribatuzko terrenoetan egingo dira (Gipuzkoan eta Bizkaian % 85-a, horietatik % 91-a radiata pinuena izango dira) (Groome 1990: 68).

Mendi jabetzaren banaketa (Ha)

LURRALDEA	ONDARE MENDIA	UDAL MENDIA	MENDI PARTIKULARRA
ARABA	2.165	147.952	153.786
BIZKAIA	3.740	39.263	178.258
GIPUZKOA	5.049	26.651	165.847
E.A.E.	10.954	213.866	497.891

Iturria: Euskadiko Baso Plangintza, 1994-2030

Mendi industria paper industriaren eskarian ardaztuko da pixkanaka. 1984. urtean ebakitako pinua produkzioaren % 93'7-a izango da, haritza, pegoa eta gaztainondoa % 2-a baino ez. Hamar urte geroago, bigarrenen kopurua igo egingo da; pinuak produkzioaren % 91'48-a suposatzen du eta haritza eta antzekoek % 8'51-a. 1984. urtean basoaren sektorea nekazaritza produkzioaren % 13'2-koa da, eta Espainian batazbestekoa % 2'8-koa bakarrik. Produkzioan, lehenbizi, Bizkaia aipatu behar da, gero Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa (lurralde hauetan haritzak, ametzak eta pagoak garrantzi handiagoa dute) (Groome 1990: 252).

1984. eta 1993. urteen artean egurraren salneurriek krisialdi sakona izan dute (Estatu Batuetako, Txile eta Errusiatik ekarritako egur merkeagoarengatik eta paperfabriken krisialdiarengatik, besteak beste). Honen ondorioz (beste arrazoien artean), paper fabrika asko itxiko dira. Egun pinuaren eskaria ez da hain garrantzizkoa. Dena den Euskal Autonomi Elkartearen sortutako egurraren % 51'5-a paperfabriketara doa, % 43'4-a zerratokietara; Estatuko ore produkzioaren % 70-a EAE-n egiten da (Groome 1990: 254).

Konpetentzien aldaketarekin, 1985. urtean, basoarekiko konpetentziak Foru Aldundietara pasatuko dira, basoaren rol bikoitza planteiatuz: babesle eta ekoizle bezala. Egun dituen konpetentziak hauek dira: kontserbazioa, mendien defentsa, birbasoketa, baso ustiaketa eta zerbitzuak, larreak, mendibideak, basozaintzaren kudeaketa, lurren zaintze eta hobekuntza, herribasoen errejimenaren erregulazioa.

1984. urtean Eusko Jaurlaritzak lau interbide proposatu zituen:

- 1- Bertako zuhaitz moten bizkortzea.
- 2- Oreka ekologikoa lortzeko neurriak.
- 3- Baso teknika berrien ezarpena.
- 4- Nekazaritza-ekoizketen, nekazaritza-abeltzantza probetxamenduaren eta izadiaren kontserbazioaren arteko orekaren proposamena.

Horrela diru-laguntza politika berria hasi du: Eusko Jaurlaritzak bertako zuhaitzen landaketaren % 85-a pagatzen du, landare exotikoen landaketaren % 30-a, garbiketen % 40-a, mozketa lanen % 50-a, eta mekanizazioa. Europako Elkarte Ekonomikoak ere laguntzak ematen ditu: makinaren moldaketaren % 60-a. Jatorrizko basoak mantentzearen parkeak sortu dira eta baita zabalera handiko baso eremuak erosi ere (Pagoeta, Leitxaran) (Groome 1990: 257-258).

“Euskadiko Baso Plangintza, 1994-2030”-k honako helburuak jorratu nahi ditu (Eusko Jaurlaritzak - Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 1994):

I– Mendi Zuhaiztuen iraunkortasuna eta aniztasuna bermatu, baso barrutia eta ekologi kontserbazioa mugatuz, ordenatuz eta artikulatuz. Horretarako:

1– Baso-berritzea bultzatu behar da.

2– Higadurak ukitutako terrenuen jabeekin konponbide bat bilatu behar da, hauen kostuak urritzearen.

3– Goldatze lurak aukeratu behar dira.

4– Higadura handia eragiten duten jarduerak uztaiz behar da.

II– Baso kudeaketa baten ardatzpuntuak ezarri, naturagiroarekin itzalgarriak eta zerbitzu eta ondasunen horniketa iraunkorarekin erangingarriak:

1– Dirulaguntzak eman.

2– Kudeaketa pribatuaren metodoen eta arlo orokorraren baso norabideen arteko menpekotasuna bilatu.

3– Baso kudeaketarako eta inbertsiorako elkarteak sortu.

III– Komunikazio, prebentzio, defentsa eta horniketaren beharrezko azpiegiturak, eta aztertzea, informazio iraunkorra eta formazio teknikoaren egitura bihurtzea eman behar zaie baso lurraldeei.

1– Basabideak eraiki.

2– Suteen prebentzioa antolatu.

3– Landareen eta haziaren kalitatea kontrolatu.

4– Baso inbentarioa egin.

5– Baso ikerkuntza areagotu.

6– Basolangileen birziklapena bideratu.

IV– Baso sektorea kohesionatu, enpresei jarduera erraztuz.

1– Egurraren Sektorearteko Mahaia sortu (basojabeak, errematatzaileak, zerrariak, birriketa enpresak).

2– Kooperatibak eta enpresa txikiak sortu.

3– Zerrari enpresa hobetu.

4– Baso hondakinen eta egur txikien ustiatzea areagotu.

V– Basoekintza baserri eta hiri gizarteari lotu, basa eta ingurugiro kultura sortuz.

Egurak gaur egun antzinean baino erabilpen laburragoa dauka (paper fabrikak, zerrategiak, altzarigintza, eraikuntza). Urtean 2 miloi metro kubiko ebakitzen dira EAE-n. EAE-ko azalaren erdiak (170.000 hektarea) radiata pinua dauka, eta honen egurra Elkartean moztutako egurraren % 80-90-a da. Pinu egurraren zati bat Burgos, Soria eta Levantera esportatzen da.

Euskal Herrian egun lau klimatologi domeinu bereizi ditzakegu:

– Eurosiberiar alde-giroa (Gipuzkoa, Bizkaia, Lapurdi, Zuberoa, Nafarroa Beherea, Arabaren iparraldea, Nafarroaren iparmendebaldea). Zuhaitz mota nagusienak pagoa eta haritza dira. Bigarren maila batean gaztainondoa, azkarra (astigarra) eta urkia daude. Degradazioarengatik geroa, otea, txilarra, otabela eta belarsoroak aurkitzen ditugu.

– Mediterranear alde-giroa (Araba eta Nafarroako hegoaldea). Zuhaitz mota nagusia artea dugu, eta gero alepo pinua eta intxaurrendoa. Degradazioak erramua, xarbotu eta izpilikua ematen ditu. Ibai ertzetan makala eta zurzuria aurkitzen dira.

Landare moten banaketa lurraldeen arabera

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Azalera zuhaitzduna (ha)	143.502	118.837	122.411
% Azalera geografikoaren arabera	47	60	56
Pinu radiataren % azalera zuhaitzdunaren arabera	11	57	66
Koniferen %	14	14	11
Frondososen %	75	29	23

Iturria: Euskadiko Baso Plangintza, 1994-2030

Landare moten banaketa E.A.E-an (Ha)

LURRALDEA	FRONDOSOA	KONIFERAK
ARABA	76.646	36.986
BIZKAIA	14.253	101.805
GIPUZKOA	30.586	79.757
TOTAL	121.485	218.549

Iturria: Euskadiko Baso Plangintza, 1994-2030

– Iragapen alde-giroa (Araba eta Nafarroako erdialdea). Haritzondoa, ametza eta haritz ilaunduna. Koniferen artean larizio pinua da aipagarriena.

– Goimendietako alde-giroa (1.200 edo 1.600 metrotik gora). Zuhaitz mota karakteristikoena pinu gorria da. Igotzen goazen heinean izeia aurkitzen dugu.

Ondorioak

Erdi Aroaren bukaerak aldaketa haundiak suposatu zituen basoaren egoeran. Erdi Aroaren bukaeran eta Aro Berriaren hasieran basoaren oreka ekologikoa apurtu egin zen. Aro Berrian olagizonek izandako basoaren kontrola agortu zen. Hemendik aurrera, udalak izan ziren basoaren kudeaketa burutu zutenak, burdinaren interesak defendatuz alegia. Erdi Aroarekin ere oparotasuna desagertu zen eta desoihanketa azaldu. Aro Berrian, euskal lurraldeak arazoaren garrantziaz jabetu ziren, basogintza modernoa eraikiz. Denboraldi honetan, desoihanketa gainditzeko baso teknikak zehatzagoak egin ziren eta baita legeak ere. Nahiz eta basoa berreskuratzeko ahaleginak ugariak izan ez zen emaitza onik lortu, eta basoaren atzeratzeak aurrera egin zuen.

Industri jarduerak garatzen ziren heinean basoak atzera egiten zuen, eta aldi berean herri erabilpenak eta eskubideek. XVIII. mendea arte basoa udalen diru iturririk nagusia izan bazen ere, Gaur Egungo Aroan zerga zuzenek ordezkatuko dute. Basoaren produktibitatea murriztu zenean, udalek komunalak saltzera behartuak aurkitu ziren. Antzinako Errejimenean udala jabego nagusia bazen ere, XIX. mendetik aurrera basoak esku pribatueta pasa ziren.

Antzinan bezala egun euskal erakundeek babesle eta ekoizle rolak mantentzen dituzte. Gaur egun arte, euskal lurraldeak basoa berreskuratzen saiatu dira baina emaitza aipagarririk gabe, nahiz eta Estatu mailan Euskal Herriko egoera ona izan. Ez du ematen, ordea, datozen urteetan hartutako neurriek ezer aldatuko dutenik; basoa berreskuratzeko bidea oso luzea izango da.

Bibliografia

- AA.AA. (1990): "La explotación forestal en Euskal-herria", *Bailarak. Guía de ríos, valles y comarcas de Euskalerría*, 4. alea, Linorsa.
- Alberdi, X.-Aragón, A. (1998): "La construcción naval en el País Vasco durante la Edad Media", Itsas Memoria, Untzi Museoa, Donostia.
- Aragón, A. (1996): "La importancia de la madera en la tecnología medieval en Gipuzkoa", *I Jornadas sobre minería y tecnología en la Edad Media peninsular*, 463-470. orr., Sociedad Española de Estudios Medievales-S.A. Hullera Vasco-Leonesa, León.
- Arizaga Bolumburu, B. (1990): *Urbanística Medieval (Gipuzkoa)*, Kriselu, Donostia.
- Ascasibar, J. (1980): "Historia forestal del país", *Mendiak*, 60-74. orr., Etor, Donostia.
- Bauer, E. (1980): *Los montes de España en la Historia*, Nekazaritzako Ministeritza, Madril.
- Bilbao, L.M. (1979): "Transformaciones económicas en el País Vasco durante los siglos XVI y XVII", *Historia del País Vasco*, 2, 111-143. orr., Erein, Donostia.
- Bravo, J. (1892): *Legislación de Montes*, Madril.
- Carrión Arregui, I.M. (1991): *La siderurgia Guipuzcoana en el siglo XVIII*, Kutxa-EHU, Bilbo.
- Díez de Salazar, L.M. (1983): *Ferrerías en Gipuzkoa (siglos XIV-XVI)*, Haranburu, Donostia.
- Díez de Salazar, L.M.-Ayerbe Iribar, M.R. (1991): *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa*, I, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Eusko Jaurjaritza - Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (1994): *Euskadiko Baso Plangintza, 1994-2030*.
- Garayo, J.M. (1984): *Aprovechamientos agropecuarios forestales en común en Alava*, Sancho El Sabio Fundazioa, Gasteiz.
- García Cortazar, J.A. (zuz.)(1985): *Bizcaya en la Edad Media*, Haranburu, Donostia.

- Gogeaskoetxea, A. (1993): *Los montes comunales en la Merindad de Busturia, siglos XVIII-XIX*, EHU, Bilbo.
- Goihenetxe, M. (1987): *Lapuri historian*, Elkar, Donostia.
- Goyheneche, E. (1985): *Historia de Iparalde: Desde los orígenes a nuestros días*, Txertoa, Donostia.
- Gomez Prieto, J. (1988): "El montazgo en la villa de Balmaseda siglos XVI-XVII", *II Congreso Mundial Vasco. Congreso de Historia de Euskal Herria*, 3, 191-204. orr., Txertoa, Donostia.
- Groome, H.J. (1990): *Historia de la Política Forestal en el Estado Español*, Ingurugiroaren Agentzia, Madril.
- Imízcoz Beunza, J.M. (1992): "Tierra y sociedad en la montaña de Navarra: los comunes y los usos comunitarios del Antiguo al Nuevo Régimen. Siglos XVIII-XX", *Príncipe de Viana*, 16, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Larrañaga Zulueta, M.-Tapia Rubio, I. (1993): *Colección documental del archivo municipal de Hondarribia*, I, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Lynch, J. (1991): *El siglo XVIII*, Crítica, Bartzelona.
- Norma Foral de Montes de Gipuzkoa* (1996), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Novísima recopilación de las leyes de España* (1975), VII. Liburua, Estatuaren Boletín Ofiziala, Madril.
- Ordenanzas Generales de Montes* (1833), Errege Inprimategia, Madril.
- Otaegui Arizmendi, A. (1985): "Las ventas de bienes concejiles en la provincia de Guipúzcoa, durante la Guerra de la Independencia", in Gonzalez Portilla, M.: *Industrialización y Nacionalismo. Análisis comparativo*, I Coloquio Vasco-Catalán de Historia, Bartzelona.
- , (1991): *Guerra y crisis de la hacienda local. La venta de bienes comunales y propios en Gipuzkoa, 1764-1814*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Piquero, S. (1991): *Demografía guipuzcoana en el Antiguo Régimen*, EHU, Bilbo.
- Uriarte Ayo, R. (1988): *Estructura, desarrollo y crisis de la siderurgia tradicional vizcaina (1700-1840)*, EHU, Bilbo.
- Uriarte, G. (1985): "Estructura económica", *Historia del País Vasco. Siglo XVIII*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Urzainki Mikeleiz, A. (1990): *Comunidades de montes en Guipúzcoa: Las parzoneras*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.